

► Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi». Hizkuntzalaria

«¡A por ellos! kontsigna kulturara heldu da»

Joan den ostiralean Donostiako Miramar jauregian UZEIren urteurrena ospatzera bildutako pertsonak Txillardegiren haserrearen lekuko izan ziren. Elkarriketa honetan bere jokaeraren arrazoiak argitzen ditu hizkuntzalaria eta kulturaren diharduten ezker abertzaleko kideak jasaten ari diren erasoak salatzen du.

Gotzon ARANBURU

PUZEI (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea) sortu zela hogeitau urte direla eta ospakizuna prestatu zuen erakunde honek Miramar jauregiko areto nagusia. Ekitaldiaren ardatza UZEIren sortzailei egin beharreko omenaldia zen, baina ez berauen zerrenda irakurtzerakoan ez oroigarriak banatzerakoan ez zen Jose Luis Alvarez Enparantzaren izenik entzun, bai ordea beste hamaseirena.

Hau ikusita, Txillardegi bere aulkitik zutitu eta aretotik irten egin zen, bertan bildutakoiei «On egin dagizu!» ozen esan eta gero. Euskal kulturagintzako eta unibertsitate munduko aurpegi ezagun asko zegoen Miramarren, baita politika arlokoak ere, horien artean Gasteizko Gobernuak zerbait goi kargudun.

GALDERA: Miramarren bildutakoetako askok ez zuten ulertu zure jokarea. Zer adierazi nahi izan zenuen?

ERANTZUNA: Haserre, baina ez Txillardegi baztertu zutelako, kultur munduko abertzale independentista bat baztertu zutelako baizik. Arazoa, hau oso garbi utzi nahi dut, ez da pertsonala, ni «turko-buru» bat baino ez naiz, baina ahoa itxia edukitzeaz aspertu egin naiz.

G: UZEIren sortzaileen artean al zinen zu?

E: Gauzak nola izan ziren azalduko dizut. UZEI 1978ko abuztuan sortu zen. Jakin aldirikarian ari zen jendearen ardurapean, hiztegi espezializatua («berezi-tuak» deitzen zitzaizten) prestatzeko helburuarekin. UZEIren babesean irten zen lehenengo hiztegia «Fisika» izan zen, Jose Ramon Etxebarriak idatzia, 1979ko apirilean. 1979ko uztaillean «Politika» irten zen. Paulo Iztueta zuzendaritzapean. Guztien helburua euskararen normalizazioaren aurrera egitea zen. UZEIko zuzendaria zen Joseba Intxausti deitu egin zidan hizkuntzarantzako hiztegia nire gain hartzeko proposatzeko, eta baiezkoa eman nion.



Jon URBE

Horretan ari nintzela, 1979. urteaz ari naiz, Joseba etorri zitzaizdan zera adierazteko: instituzioen dirulaguntzak eta kredituak eskatu beharra zeukala eta nire izena, ETARI lotuta zegoelako, UZEIren zuzendaritzan azalzen bazen oso zail izango zuela sumentzioak lortzea. Nire izena paperetan ez azaltzea eskatu zidan, eta momentu hartako egoera ikusita onartu egin nuen, penaz, eta lanean segitu nuen. Bere gestioak ez oztopatzeak akordioa izan zen. UZEIko berrogei hiztegi ateratu ditu eta horietako seigarrena izan zen nirea. Hemeretzi urte pasatu ondoren, ostiraleko ekitaldian nire izena berriro ezabatua zela ikustean, alde egin nuen jauregitik, protesta moduan. Askok agostatu dut azken urteetan agostatzeko.

Unibertsitateko kasua

G: Ezker abertzaleko kultur kideen edo intelektuaren aurkako maniobrarik ikusten al duzu?

E: Bai, dudarik gabe. Abertzale independentistak arlo askotan jasaten ditugu erasoak eta isolamendua, eta kultura arloan berdin-berdin gertatzen da. Be-

gira, adibide gisara: UZEIko lehenengo hiztegia egin zuena, goian esan dudana bezala, Joserra Etxebarria izan zen, eta hamahirugarrena Koldo Gorostia, Lan Zuzenbidean adituak, prestatu zuen. Bai bata bai bestea unibertsitatekan kanporatuta daude gaur egun. Arrazoi akademikoengatik kaleratu al dituzte? Kasualitatea ote da biak ezker abertzalearen ingurukoak izatea? Norbaitek edukitzeakotan euskal unibertsitatean egoteko eskubidea horietatik dute, eta begira hainbeste lan egin eta gero zer ordain jaso duten. Eta beste izen eta kasu asko aipatuko nizkizuke, bazterketa sistematikoa delako adierazte.

G: Zenbaitentzat ezaguna da aspalditik ari zarela «ordaintzen» zure militantzia abertzaleagatik. Zein izan dira «faktura» horiek? **E:** Berriro diot ez naizela ari mendeku bila, baina isilik egoten aspertu naizela ere bai. Salagarria dena salatu egin behar da, eta nik neure kasua ezagutzen dut hobekien. Hegoaldera itzuli nintzanean Gasteizko fakultatean hastera nindoan lanean, baina ezkeko borobila jaso nuen. Endrike Knörek bidali zidan karta baten bidez: ez ninduela han begien bistan ikusi nahi esan zidan

garbi eta garbi. Tesia ere Bartzelonan aurkeztu behar izan nuen, Koldo Mitxelena ez zuelako zuzendu nahi. Euskaltzaindikoa ere aipatzeko modukoa da. Instituzio honen historian ez da inoiz gertatu hautagai bati hiru aldiz atea itxia, niri izan ezik. Askotan esan dut berdin zaidala, baina edonork ikusten du ezkeko sistematiko horren arrazoiak ez direla akademikoak. Norbaitek esplikatu beharko ditu.

Autonomistak nagusi

G: Zein dira kulturaren ari diren ezker abertzaleko pertsonen urkak jarrera honen erantzuleak? **E:** Argi eta garbi esan behar da Euskal Herriko kultur eta hizkuntza instituzio eta erakunde ofizial asko espainolisten esku daudela. Zein da Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea? Behin eta berriz lazo urdina erakusten duen pertsona bat. Eta pertsona horrek berak eragin handia du gaur egun Euskaltzaindian. Adibide bat baino ez da. Abertzale independentistak baztertzeko proiektua garbi dago, eta hemengo instituzioen jabe egin diren «autonomista» horiek «¡A por ellos!» kontsigna aplikatzen ari dira. Ni biktimetako bat baino ez naiz.

Urte askotan baztertzeko sistematikoa jasaten ari gara kulturagintzan ari garen abertzaleak eta ni isilik egoten aspertu egin naiz oraintxe

Absuelto un cazador que abatido dos ciervas en época de veda en Nafarroa

IRUÑEA

El cazador José Antonio Elosegui Toledotxipi ha sido absuelto por la Audiencia Provincial de Iruñea de un delito contra la fauna por el que fue juzgado, al considerar el tribunal que haber abatido dos ciervas en época de veda puede tratarse de una falta administrativa.

Sobre las 18 horas del 12 de noviembre de 1996, el acusado se encontraba en el coto de caza Monte Aezkoa, perteneciente al valle del mismo nombre, adjudicado a la sociedad local de cazadores, llamada «Los Mozolos», que, según manifestó el afectado, le habían autorizado cazar ese día.

En un todoterreno

Por ello, Elosegui, según reconoce el fallo, dio muerte a dos ciervas, valoradas en 300.000 pesetas cada una, y las que transportó en un vehículo todoterreno cuando fue sorprendido por la Guardia Civil de Auritz, que decomisó las piezas por carecer de los preceptos obligatorios.

El Ministerio Fiscal solicitó para el cazador por el delito contra la fauna la retirada de la licencia de caza durante 4 años, más el pago de 600.000 pesetas al Gobierno de Nafarroa por las dos ciervas abatidas.

La defensa, por su parte, pidió la libre absolución, al estimar que su defendido creía que ese día no había veda. Consideró el caso como infracción administrativa.

El tribunal, a pesar de que dice que ese día estaba prohibida la caza, ha decidido comunicar el caso a la consejera de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente para que estudie la posible sanción administrativa.

Hallado un obús de la guerra civil en el sótano de un domicilio de Bilbo

BILBO

El hallazgo de un obús de la guerra civil española, al parecer todavía activado, en un sótano obligó ayer a desalojar tres edificios en la calle Ercilla de Bilbo.

Según informó el Departamento de Interior del Gobierno de Gasteiz, el obús, de un metro de largo y cien kilos de peso, fue encontrado por un vecino que limpiaba el sótano del inmueble.

Por este motivo, sobre las 09.00 horas, la Ertzaintza acordó con la zona y cortó el tráfico, además de desalojar tres edificios colindantes situados en la confluencia de las calles Ercilla, Heros y Henao de la capital vizcaína.

Esta situación se mantuvo mientras duraron los trabajos de los artificieros de la Policía autonómica para desactivar el obús hallado.